

Izen eta gertakarien gaineko kuantifikazioa

Ricardo Etxepare, Urtzi Etxeberria

► **To cite this version:**

Ricardo Etxepare, Urtzi Etxeberria. Izen eta gertakarien gaineko kuantifikazioa. X. Artiagoitia

J. A. Lakarra. "Gramatika Jaietan. Patxi Goenagaren omenez", X. Artiagoitia

J. A. Lakarra (Ed.) (2008), x, 2008. <artxibo-00330617>

HAL Id: artxibo-00330617

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00330617>

Submitted on 15 Oct 2008

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

IZEN ETA GERTAKARIEN GAINEKO KUANTIFIKAZIOA*

Urtzi Etxeberria (IKER-CNRS) eta Ricardo Etxepare (IKER-CNRS)

1. Sarrera

Euskararen zenbatzaile ahul gehienak (*asko, gutxi, hainbat, zenbait, ugari, franko*, e.a.)¹ aditzarekin pluralean komuntatzeko aukera izateaz gain badute aditzarekin inolako komuntadurarik ez erakusteko aukera, beren interpretazio plurala gora-behera. Komuntaduragabeko kasuetan hirugarren pertsona singularreko komuntadura hartzen da

- (1)
 - a. Bezero asko/anitz etortzen da/dira halako egunetan.
 - b. Hainbat ikaslek arazoak izango ditu/dituzte aurten.
 - d. Liburu pilo bat dago/daude saldu gabe.
 - e. Zenbait artistak ez daki/dakite zer egin bere(n) diruarekin.
 - f. Txanpon ugari aurkitzen da/dira kale bazterretan.
 - g. Bezero gehiegik eskatu du/dute arrain zopa (ez zaigu gehiago gelditzen).

(1)-eko kasuekin loturik daude seguru aski (2)-ren erakoak ere. Hala ere ez ditugu batera tratatuko, hiztun askorentzako (1)-eko kasuak posible diren bitartean, (2)-ren antzekoak ezinezkoak direlako. Aparte utziko dugu beraz, numeralekin zenbait tokitan ematen den antzeko fenomenoak:

- (2) Bi ardi ikusi dut

2. Hipotesiak

(1)-eko kasuen analisi semantiko bat emateko asmoz, ondoko bi hipotesiak defendatuko ditugu:

- (3)
 - a. Zenbatzaile plural komuntaduragabeek aldi berean indibiduen eta gertakari/egoeren gaineko zenbaketa egiten dute.

* Eskerrak eman nahi genizkieke Xabier Artigoitia eta Joseba Lakarrari Patxi Goenagaren omenaldi liburu honetarako artikulua idazteko gonbidapena luzatu zigutelako. Ikerketa hau ondorengo proiektuen laguntzari esker burutu ahal izan da: Euskal Herriko Unibertsitateko 9/UPV00114.130-16009/2004 proiektua; Euskal Gobernuako IT-210-07, Ikerketa Sareak/Humanitate Arloa 2006: *A typological study of the functional architecture of the clause*, Ikerketa Sareak/Humanitate Arloa 2007: *Licensing conditions at the interfaces* proiektuak; Akitaniako Kontseilu Erregionaleko Akitania-Euskadi/2006: *Izen Sintagmaren Egitura Euskaraz* proiektua; CNRS-ko Fédération Typologie et Universaux Linguistiques-eko FR2559 proiektua; ANR-ko TSABL (ANR-07-CORP-033) proiektua.

Harremanetarako posta-e: u.etxeberrria@gmail.com, retxepare@euskalnet.net

¹ Ikus Etxeberria (2005, 2007) euskal zenbatzaile sendoen eta ahulen arteko banaketa zein den eta banaketa hau zein propietateei zor zaien ikusteko.

b. Komunztadurarik erakusten ez duten zenbatzaileak *homomorfismo* deitu mekanismo edo baldintza semantikoaren (ikus Krifka 1989, 1990) bitartez interpretatzen dira.

3. Komunztadurarik gabeko zenbatzaileen gaineko aurreko lanak

3.1. Txillardegik (1978)

Txillardegirentzat komunztaduragabeko zenbatzaileek (kardinaletatik hasita) multzotasuna adierazten dute, eta komunztaduradunek berriz, multzoaren elementuak, banaka hartuta.² Txillardegiren ustea mugagabetasunaren ikuspegi jakin batean errotua dago. Haren arabera, pluraleko forma guztiak bi eratan eman daitezke: (i) multzo gisa; (ii) multzo horren barneko elementuen zenbaketa gisa. Lehenbizikoari mugagabea dagokio; bigarrenari berriz artikulua plurala eta pluraleko komunztadura. Pluraleko forma desberdinen arteko aurkakotasuna perpaus pare honen bitartez eman daiteke:

(4) a. Hiruri aditzen zaio b. Hiruei aditzen zaie

Hiru kantari kantuan ari diren testuinguru batean, (4a)-k hiru kantarik osaturiko multzoa adieraziko luke, eta (4b)-k hiru kantari desberdinen jarduna. Ikuspegi honen baitan, (5b) bezalako perpausak (5a)-ren ordezkotzat hartuak, sistematik kanpo gelditzen dira. Txillardegik gaztelaniatik bildutakotzat jotzen ditu:³

(5) a. Bi liburu erosi dut b. Bi liburu erosi ditut

Sistema berbera numeralak ez diren beste zenbatzaile ahuletara zabaltzen du. Honela, *asko* mugagabe komunztaduragabea multzotasunaren adierazle ateratzen da, eta *asko* komunztaduraduna, berriz, askotasuna osatzen duten elementuen adierazle.⁴ Tarteko etsenpluak (5b) -baita (1)ean pluraleko komunztadura erakusten dutenak ere-, sistemaz kanpokoak dira, eta gaztelaniari egotzi behar zaizkio. Txillardegiren mugagabetasunaren ikuspegiak zenbait jende mintzatu da aspaldi zuzen osoz arbuizatzeko (Irigoyen, 1985, 1987; Rotaetxe, 1979). Deskriptiboki, Txillardegik

² Txillardegik (1977) honako etsenpluak ekartzen ditu (hau Santakruz bertsolariarena, 78.orr):

(i) zenbait predikadoren/sermoia asten du/eta atentziya askok paratzen du”.

Nola jakin genezake (i) esaldian multzoaz mintzo garen ala ez?

³ Hona hitzak: “Zenbakariak plurala baitira erdaraz, kalko-bidez sartu zaizkigu gero eta gehiago pluralezko komunztadurak” (37.orr). Araua emateko orduan baina, egungo egoera kutsatuari men egin behar zaiola dio: “... honen zabalkundea dela medio, onartu beharrekoa”. Txillardegik/Larresororen bidea hartu zuen baita ere Garmendiak (Euskera, 1968, XIII, 287-290).

⁴ Txillardegik Etxepareren bertso batzuk dakarzki bere hipotesiaren berme. Hona hemen:

“anhitz gizon ari bada andrez gaizki erraiten

Arhizki eta desoneski baitituzte aipatzen”

Bere hitzak: “*anhitz gizon* horrek osatzen duen multzoa lehenengo aldiz aipatzerakoan (oraindik ere, beraz, gizon-multzoa ez-egun denean), *bada* irakurtzen dugu. Multzoaren berri dugunean berriz, ... *baitituzte* plurala irakurtzen dugu”. Azalpen hau ez de berez uztartzen hipotesiarekin: ez dirudi nahitaez Etxepareren azken bertsoa gaizki mintzo direnen banakako berri ematen duenik. Edozein kasutan, multzo bat aipatzeak ez ditu multzo horretako elementuak ezagun egiten: gaizki mintzo direnez ari da, nor ere baitira. Honelako etsenpluek bestelako azalpen bat dute *uztardura* izeneko fenomeno sintaktikoaren barnean. Ikus 5.1 atala.

zubereraren ustezko ekarrietan hartzen du oin, baina ez dugu uste gauzak berak dioen bezala direnik.⁵

3.2. EGLU (1985)

EGLU-I-ek masa/banako oposizioaren baitan ezartzen du numero komunztaduraren ezabatzea.⁶ Adibide gisa honako bi perpauson konparazioa ematen du:

- (6) a. Liburu asko erosi dut b. Liburu asko erosi ditut

(6a)k eta (6b)k ez dute interpretazio bera EGLUren ustez: "lehenbiziko adibidean liburu masa hartzen dugu gogoan. Bigarrenean berriz liburu bat, eta beste bat, e.a". Berehala argiagoa izan nahi duen etsenplu batera jotzen du, oraingoan "harri asko" bezalako izen batekin:

- (7) a. Harri asko bota dute b. Harri asko bota dituzte

(7a)n *harri* zenbakaitz modura hartua da, harri kantitate handi baten gisa. Aldiz (7b)n, harri kopuru handia (harri ale asko, alegia) bota dutela esaten da. Honek komunztaduraren arazoa konponduko luke (masa izenak 3.p.sing baitira).

- (8) EGLU: harri asko = liburu asko (komunztaduragabea) = masak

Hau da, komunztaduraren desagertzea zenbagarriak diren izenezko adierazpideen baitan zenbakaitzak direnengan komunztaduraren agertzeak eragiten duen tipo-aldaketaren kontrakoa eragingo luke: numero komunztadurak masak zenbagarri bihurtzen ditu (9a,b); numero komunztaduraren kentzeak izen zenbagarriak zenbakaitz bihurtuko lituzke (10a,b).

- (9) a. Ardoa edan dut (zenbakaitza)
b. Ardoak edan ditut (zenbagarria)

- (10) a. Ikasle asko ikusi ditut (zenbagarria)
b. Ikasle asko ikusi dut (zenbakaitza)

Baina cf (2).

4. Komunztaduragabeko zenbatzaile sintagmen ustezko masa izaera

⁵ Coyos-ek (1999) egoeraren laburpen bat egiten du (234.orr): "... on pourrait observer que l'indication du nombre relève plutôt du marquage accusatif puisque l'accord se fait plus aisément avec un nominal à absolutif suffixé déterminant un verbe à auxiliaire *izan*...qu'avec un nominal à absolutif suffixé déterminant un verbe à auxiliaire *edan*...et obligatoirement avec le nominal à suffixé ergatif...On pourrait dire au contraire que le nominal avec l'ergatif se différencie des deux autres : l'accord pluriel est obligatoire avec un quantificateur [*hanitx*, kasu hauetan] et pas avec les nominaux à l'absolutif. Ceci est un trait d'ergativité". Sistema beraz aski konplexua da, eta ezin jar daiteke zuberera Txillardegiren komunztaduraren hipotesiaren oinarritarako. Zubereraren sistema, beste aldetik, artikulua honetan deskribatu dugunaren diferentea da. Iduri du sistema hortako ezaugarri batzuk ekialdeko beste hizkeretan ere agertzen direla. Sistema horiek beraz, ez dute zertan hemen deskribatzen dena bezalako izan behar, eta ikerkizun uzten ditugu.

⁶ EGLU-ri jarraiki, beste horrenbeste egiten dute Odriozola eta Zabala-k (1992, 73.orr).

Badira hainbat arrazoi pentsatzeko komuntaduragabeko zenbatzaileek ez dutela masen edo izen zenbakaitzen gisa jokatzeko. Intuitiboki, komuntadurarik agertzen ez duten zenbatzaile sintagmek ez dute masa izaera duten bestelako izenek duten esanahia. Pelletier-ek (1975) asmatu honako gogo-esperimentuak masa izen ohikoenen denotazioa agerian utziko luke. Bere gogo-esperimentuak bi tresna proposatzen ditu: *Zirtzikagailu Unibertsala* (Universal Grinder) eta *Objektu-egile Unibertsala* (Universal Objectifier). Imajina dezagun tresna bat edozer gauza txikitu dezakeena. Orain hartu edozein izen zenbagarri denotatzen duen zer bat eta makina horretatik pasarazi. Izen berbera erabiltzen badugu makinaren beste aldetik pasatzen dena izendatzeko, izen horrek orain masa bat izendatzen du. Sagar bat pasatzen baduzu jasotzen duzuna sagar xehatua da (*entsaladak sagar pixka bat dauka* bezalako esaldi batean eman litekeena). Kontrako funtzioa izango luke *objektu-egile unibertsala* deituak. Bistan da gure komuntaduragabeko formek ez dutela horrelako zerbait izendatzen; (11) bezalako zerbaitek, bere adiera arruntenean, ikasleak osorik ditu:

(11) Ikasle asko ikusi dut gaurko batzarrean

Egia da Pelletier-en esperimentuak ez duela masa-izenen alor osoa besarkatzen. Ingeleseko *furniture*, edo euskarazko *baxera* hitzak esate baterako, masa-izenak dira, baina baxera osoa eta baxera birrindua ez dira gauza bera. Pelletier-en esperimentua zenbagarri nahiz zenbakaitz izan daitezkeen izenei dagokiela esan genezake. Hor ere, ez dator bat komuntadura kentzerakoan zenbatzaile sintagmek erakusten duten interpretazioarekin:

(12) Plater honetan *sagar* asko ikusten dut
 ⇒ zenbagarri
 ⇒ zenbakaitz

Bi irakurketak itxuraz antzekoa den honako gaztelaniazko fenomenoarekin konpara ditzakegu:

(13) a. Hoy hemos visto *mucho Indurain*
 ⇒ Indurain ezaugarritzen duten bertuteen agerpen aski konplitu bat
 [hitz abstraktuak=masak]
 b. Hoy hemos visto *a mucho Indurain*
 ⇒ ironiaz tour-aren garaian errepideak betetzen dituzten txirrindulari amateur-enganatik esana

Lehen kasua (13a) Indurainek Galibierreko tontorra garaile igaro zuen egun gogoangarri haietako batean esan litekeen zerbait da: bere onenean agertu da txirrindularia, eta izen abstraktu gisa hartuta (Indurainen txirrindulari ahalmenak azaltzen dituen objektu abstraktu baten gisa)⁷ haren gaineko zenbaketa bat egiten dugu, bertute horien agerpen aski konplitu izan dela esanez. Bigarren kasuak, (13b)-k, ez digu hori esateko balio. Esaldia egoki egingo lukeen kontestu bat hauxe izango litzateke: tourraren garaia da, eta ohi bezala, errepideak mukurru daude txirrindulariak emulatu nahi dituzten zaleez. Haiei ironiaz erreferentzia eginez, esan genezake (13b) bezalako zerbait. Bestela esanda,

⁷ Ikus Koslicki (1999) izen abstraktuen eta masen arteko loturaz.

(13b)-k egitura atomiko garbia dauka, eta bizikletan ari diren gizabanakoez ari da, ezinbestean. Kontua da euskarazko komunztaduragabeko formek nahitaez (13b)-ren tankerakoak direla. (14) perpausak ez dezake, gure belarrietan behintzat, (13a)-ren adiera bera izan; bai ordea (13b)-rena:

(14) Gaur Indurain asko ikusi dugu [(13b)-ren kidea bakarrik]

Euskarazko komunztaduragabeko zenbatzaile sintagmek beraz ez dute beren oinarri atomikoa galtzen.

Masa izenak eta komunztaduragabeko formak bereizten dituzten beste ezaugarri batzuk:

(i) Lonning (1987): masa terminoek ezin dute predikazio erlazioan egon “homogenotasunaren” propietatea erakusten ez duten predikatuekin.⁸ Zenbagarriek bai:

(15) a. * Ur askok 300 kilo baino gehiago pisatzen du
b. Zaldi askok 300 kilo baino gehiago pisatzen du

(ii) Masa izenez osaturiko zenbatzaile sintagmak predikatu gisa ager daitezke, ez ordea izen zenbagarritz osaturikoak:

(16) a. Eratzun hori urre asko da
b. Zaku hori harri asko da
d. * Multzo/talde hori ikasle asko da

cf. * Talde hori ikasle bakoitza/mundu guztia da.

(iii) Singularreko komunztadura ez da *asko*-ren afera hutsa (ikus (1)). Beste zenbatzaile batzuk ere erakusten dute. Baina badira, horien artean, masa izenekin ezin ager daitezkeenak (izenaren masa denotazioa aldatu gabe):⁹

(17) a. * Zenbait ardo edan dugu (masa interpretazioan)
b. * Hainbat ardo edan dugu (masa interpretazioan)

5. Komunztadura gabeen izaera distributiboa

5.1. *Uztardura (Reinhart 1983)*

(18) a. Langile hori baitezpadakoa zaigu, (baina) *_/berak_i* halere beste lantegi batera joan nahi du
b. * Langile bakoitza/mundu guztia_i baitezpadakoa zaigu, (baina) *_/berak_i* halere beste lantegi batera joan nahi du

⁸ Homogenoak diren predikatuak kumulatiboak eta banagarriak (divisive) dira (ikus Link 1983).

⁹ (17)-ko perpausak gramatikalak dira baldin eta ardo klaseak (Errioxakoa, e.a.) edo ardo kantitateak (edalontzi bat eta beste bat) zenbatzen baditugu, baina jakina, hori ez da masa irakurketa.

(18a) etsenpluan baitezpadako langilea eta beste nonbaitera joan nahi duena langile berbera izan daitezke. (18b)n ordea gauzak ezin daitezke horrela ulertu. Arazoa ez da *langile bakoitza* sintagma, honelako sintagmak aitzindari izan baitaitezke bestela ere:

(19) Langile bakoitzak/mundu guztiak_i pentsatzen du _j/berak_i beste lantegi batera joan beharko duela

(18)-(19)-tik sortzen den orokortzea hauxe da: izen sintagma erreferentziadunak ez bezala, erreferentzia zuzena ez duten elementuek perpaus beraren barnean baizik ez dezakete joka aitzindari gisa. Orain itzul gaitzezen *harri asko/bezero* asko parera:

(20) a. * Bezero asko_i sartu da gaur. Halere _j ez da oso pozik atera
b. Harri asko_i ekarri dute gaur. Halere _j ez da nahi genuen modukoa

(21) a. * Bezero asko_i ez da aspaldian agertzen. Baina ezin diogu _j etxera deitu
b. Harri asko_i ekarri digute gaur. Baina ezin dugu _j erabili

Harri asko bezalako zerbait, singularreko komunztaduran, perpausaz kanpo ere aitzindari izan daiteke. *Bezero asko* bezalako zerbait ez. Azken hau, zenbatzaile bortitzak bezala portatzen da (*bakoitz* e.a. -ikus Etxeberría 2005-). Lehenaren azpian singularreko masa izen bat dago. Bigarrenaren azpian ez. *Bezero asko* bezalako zenbatzaile sintagmak aitzindari gisa joka dezake perpaus barnean:

(22) Bezero askok_i [_j beherapen bat izango duela] uste du

Bezero asko eta *harri asko*-ren artean beste diferentzia bat bada: lehenak gurutzaketa efektuak erakusten ditu; bigarrenak ez. Gurutzaketa efektuak zenbatzaile bortitzen ezaugarria dira.

(23) a. Bizilagun bakoitzak_i [_j kalean agurtzen duen auzokidea] gorrotatzen du
b. * [_j kalean agurtzen duen auzokideak] bizilagun bakoitza_i gorrotatzen du

(24) a. Gure bizilagunak_i [_j kalean agurtzen duen auzokidea] gorrotatzen du
b. [_j kalean agurtzen duen auzokideak] gure bizilaguna_i gorrotatzen du

(25) a. Bezero askok_i [_j genero txarra saltzen dion dendaria] engainatzen du
b. * [_j Genero txarra saltzen dion dendariak] bezero asko_i engainatzen du

Uztardura erlazioen ikuspegitik beraz, komunztaduragabeko zenbatzaileak zenbatzaile distributiboak bezala portatzen dira.

5.2. *Irakurketa kolektibo eta distributiboak*

Har dezagun (26)-ko perpausa, non *asko* zenbatzaile ahula aditzarekin komunztatzen den.

(26) Azkenean gazte askok altxatu behar izan zuten harria

Perpaus honek bi irakurketa izan ditzake: kolektiboa, non gazteek elkarrekin altxatu zuten harria; eta distributiboa, non taldeko gazteek harria bakarka altxatu duten eta hala egin zutenak *asko* ziren.

Har dezagun orain (27)-ko perpausa, non zenbatzaile komunztaduragabe bat dugun.

(27) Azkenean gazte askok altxatu behar izan zuen harria

Zenbatzaile komunztaduragabeek portaera desberdin bat erakusten dute. Izan ere, zenbatzaile hauek irakurketa distributiboa bakarrik bultza dezakete, hau da, gazteek harria banaka altxatu zutenekoa. Ezin uler daiteke, (27) esanik, gazteek harria elkarrekin altxatu zutenik.¹⁰

5.3. *Predikatu klaseak*

Zenbatzaile komunztaduragabeak distributiboak badira, hemendik jarraitzen dena da banakako interpretazioa onartzen ez duten predikatuekin ez direla ondo joango. Predikzioa, ondorengo adibideek garbi erakusten duten bezala, betetzen da

(28) a. Ikasle ohi asko(k) festa horretan topo egin zuten/topatu ziren
b. *Ikasle asko(k) festa horretan topo egin zuen/topatu zen

(29) a. Lantegian, langile asko batzartu ziren
b. * Lantegian langile asko batzartu zen

(30) a. Mozio hori, zinegotzi askok adostu zuten
b. * Mozio hori, zinegotzi askok adostu zuen

(31) a. Jonek liburu asko ordenatu ditu
b. ??Jonek liburu asko ordenatu du

5.4. *Elkarkariak*

Asko zenbatzaileaz hornituriko sintagmek beti interpretazio plurala duten arren, elkarkariak ezin txerta daitezke komunztaduragabeko testuinguruetan.

(32) a. Ikasle askok elkarren antz handia dute
b. * Ikasle askok elkarren antz handia du

(33) a. Ikasle askok elkar/bata bestea iraintzen dute
b. * Ikasle askok elkar/bata bestea iraintzen du

(34) a. Ikasle askok elkarri/bata besteari loreak oparitzen dizkiote
b. * Ikasle askok elkari/bata besteari loreak oparitzen dizkio

¹⁰ Gauza bera gertatzen da gainontzeko zenbatzaile komunztaduragabeekin ere.

(i) Zenbait ikaslek altxatu du harria vs. Zenbait ikaslek altxatu dute harria

(ii) Ikasle gutxik altxatu du harria vs. Ikasle gutxik altxatu dute harria

Desberdintasuna argia da gure ustez.

- (35) a. Ikasle asko elkarrekin/bata bestearekin joan dira haur eskolara
b. * Ikasle asko elkarrekin/bata bestearekin joan da haur eskolara

Problema elkarkariekin da, ez orohar erlazio anaforikoekin:

- (36) a. Irakasle askok bere burua goraiatzeko joera dauka
b. Irakasle askok beren burua goraiatzeko joera daukate

Zenbatzaile distributiboek ez dute elkarkaririk onartzen, pluraltasuna adierazi arren, bai ordea *X-ren burua*-ren tankerako bihurkariak:

- (37) a. * Ikasle bakoitzak elkar ikusi du
b. Ikasle bakoitza bere buruaz mintzatu da

Heim, Lasnik eta May (1991): elkarkariek badute (elkarkari izate hutsagatik, hots beren egitura logikoan) distributiboa den atal bat, zenbait hizkuntzatan agerikoa dena (*each other*). Zenbatzaile distributiboek plurala den multzo baten baitan operatzen dute. Distribuzio operadorearen zeregina multzo plurala banakako aletan banatzea da eta ale bakoitzari buruz predikazio bat ahalbidetzea. Honek esan nahi du ezin dela bi aldiz distribuzioa egin. Lehenengo banaketak multzo plurala banako aletan desegin du dagoeneko, eta banako ale horietan ezin da berriro distribuziorik egin. Komuntaduragabeko *asko* distributiboa da berez. Heim, Lasnik eta May-k arrazoia badute orduan bi distribuzio operadorearen aurrean gaude, eta horietako batek ez du banaketarik egiten ahal. Problema beraz semantikoa da. Ez da gauza bera gertatzen pluraleko formekin: hauek ez dute nahitaez interpretazio distributiborik. Hortaz operadore distributibo bakarra elkarkariak berak ekarritakoa da.

6. Predikazio kategorikoak eta thetikoak (Kuroda, 1972)

Zenbatzaile komuntaduragabeak ezin dute agertu predikazio kategorikoetan (subjektuaren berezko ezaugarri bat agertzen dutenetan).¹¹

- (38) a. Ikasle asko altuak/azkarrak/argiak dira
b. * Ikasle asko altua/azkarra/argia da

Egoera bati buruzkoetan ez dago arazorik:

- (39) a. Ikasle asko gaisorik dago egunotan
b. Ikasle asko gaisorik daude egunotan

Antzeko zailtasunak aurkitzen dira *bakoitz*-ekin:

- (40) a. * Ikasle bakoitza oso argia da
b. Ikasle bakoitzak bere aulkia hautsi zuen

Arazoa ez da zuzen indibiduo-mailako predikatuekin, izan ere, *jakin* bezalako indibiduo mailako predikatuekin konbinatzeko ez dute arazorik.¹²

¹¹ Ikus 11. atala murriztapen honen azalpen posible batentzat.

(41) Sukaldari askok ez *daki* txokolatzeko souffle onik egiten

7. Behin bakarrik gerta daitezkeen gertakariak denotatzen dituzten aditzak

Har ditzagun (42) adibideko bi esaldiak:

- (42) a. Polizi askok kolpatu dute manifestaria
b. Polizi askok kolpatu du manifestaria

Kolpatu bezalako aditz batek ez dio gertakari bakar bati bakarrik egiten erreferentzia, izan ere manifestaria behin baino gehiagotan kolpatu ahal izan dute poliziek. Egoera honetan, zenbatzaile komunztaduradun zein komunztaduragabea erabil daitezke (42)-n ikus daitezkeen moduan.

Aldiz, nahi eta nahi ez gertakari bakar bat denotatzen duten aditzekin (i.e. (hondar-gaztelua) hautsi, (putrea) hil, e.a.) ezin ager daitezke zenbatzaile komunztaduragabeak (43b) eta (43b)k erakusten duen bezala. Aldiz, komunztaduradunak gramatikalak izaten jarraitzen dute testuinguru honetan, (43a) eta (44a)-k erakusten duten bezala.

- (43) a. Ume askok hautsi dute hondar-gaztelua
b. * Ume askok hautsi du hondar-gaztelua

- (44) a. Baserritar askok hil zuten putrea
b. * Baserritar askok hil zuen putrea

8. Zeren gainean kuantifikatzen dute zenbatzaile komunztaduragabeek?

Orain arte ikusi ditugun adibideei begiratu orhar gaitzke komunztatzen ez diren zenbatzaile ahulek murriztapen batzuk badituztela aditz sintagma desberdinekin konbinatzeko garaian. Murriztapen hauek gainera, pluraleko komunztadura erabiltzen duten zenbatzaile ahulen portaeratik aldentzen ditu. Komunztaduradunak eta komunztaduragabeak ondorengo propietateei (gutxienez) dagokienean portatzen dira desberdin:

- (45) a. Gertakari bakarra denotatzen duten aditz sintagmekin (*hil, hautsi, e.a.*)
(i) Ume askok hautsi dute hondar-gaztelua
(ii) * Ume askok hautsi du hondar-gaztelua
- b. Predikatu kategorikoetan (*altua/azkarra izan*)
(i) Ikasle asko altuak/azkarrak/argiak dira
(ii) * Ikasle asko altua/azkarra/argia da
- cf. Ikasle askok daki biderkatze taula erabiltzen
- d. Irakurketa distributibo/kolektiboak bultzatzen dituzten predikatuekin
(i) Lantegian, langile asko batzartu ziren
(ii) * Lantegian, langile asko batzartu zen

¹² Ikus 11.4 atala honen azalpen posible batentzat.

Aditzarekiko murriztapen hauek aditzera ematen dutena zera da: zenbatzaile komunztaduragabeak aditz sintagman ere eragina dutela eta ez dutela izenaren gaineko zenbaketa hutsa egiten (i.e. badirudi aditzak denotatzen duen gertakariaren gaineko zenbaketa egiten dutela). Zenbatzaile komunztaduragabe bat subjektu posizioan agertzen den (46a)-ko esaldiaren interpretazioa (46b)-ren antzeko zerbait izango litzateke.

- (46) a. Ikasle asko etorri da gaur
b. Ikasle etorrera asko egon da gaur

Halere, komunztaduragabeek egiten duten zenbaketa ez da aditzaren gainekoa bakarrik. Aditzaren gaineko kuantifikazioa egiten duten elementuen artean adberbioak aipatu genitzake.

- (47) Ikasle batek *bi aldiz* ez tul egin du azken hamar minutuetan

Esaldi honek esan nahi duena zera da: *ikasle bakar batek bi aldiz ez tul egin duela*, hau da, *bi aldiz* denbora adberbioak *ez tul egin* aditzak denota ditzakeen gertakarien gaineko zenbaketa soila egiten ari da eta ez du inolako eraginik *ikasle* izen sintagmaren zenbaketan (i.e. esaldia ezin daiteke *bi ikaslek ez tul egin dute hamar minutuz* moduan interpretatu inolaz ere).

Argi eta garbi, (48) bezalako esaldi baten interpretazioa ez da (47) esaldian lortzen dugunaren pareko eta ezin dezakegu *ikasle batek askotan ez tul egin du* bezala interpretatu. Kasu honetan, zenbatzaileak aditzaren gainean eduki dezakeen eraginaz aparte, ikaslez ari da esaldia nahita nahi ez, eta ez irakaslez edo beste edozeinez.

- (48) Ikasle askok ez tul egin du gaur

Beraz, bada desberdintasun garbi bat zenbatzaile ahul komunztaduradun eta komunztaduragabeen artean, eta orain artekoak ikusita, badirudi desberdintasun hau aditz sintagmak denotaturiko gertakariak zenbatzeko ahalmenean dagoela.

9. Analisi posible bat: Herburger-en “fokoak birmoldaturiko irakurketa” (Herburger 2000)

Zenbatzaileek (Zenbatzaile Orokortuen Teoria ontzat ematen badugu behintzat, ikus Barwise & Cooper 1981) izenak denotatzen duen indibiduen multzoaren eta aditzak denotatzen duen indibiduo multzoaren erlazioa adierazten dute.

- (49) [[Zenbatzailea [Izen Sintagma = murriztapena]][Aditz Sintagma = besarkadura]]

Herburger (2000) ohartzen da badirela testuinguru jakin batzuk non (ingelesko) zenbatzaile ahulek gertakarien gaineko zenbaketa egiten dutela ematen duen. Beste modu batetara esanda, badirudi batzutan zenbatzaile ahulek Aditz Sintagma hartzen dutela murriztapen bezala, Izen Sintagma hartu beharrean (ikus (49)); gu tratatzen ari garen kasuen antzekoa beraz.

- (50) [[Zenbatzailea [Aditz Sintagma = besarkadura]][Izen Sintagma = murriztapena]]

Herburger-ek (2000, 5. kapitulua) honako kasuak ematen ditu:

- (51) a. Few incompetent cooks applied
gutxi ezgai sukaldari-pl eskaria-egin-irag
'Sukaldari ezgai gutxik egin zuten eskaria'
- b. Few INCOMPETENT_{fok} cooks applied

Lehen perpausak ingelesez, bi adiera ditu: batean, esaten da eskaria egin zuten sukaldari gauzaez horien zenbatekoa ttikia dela. Bigarren adiera batean, "gogorra" edo "partitiboa" deitzen dena, sukaldari ezgaien multzoaren azpimultzo batek (haietako gutxik) egiten du eskaria. Bigarren perpausak, non *incompetent* adjektiboa fokalizatua agertzen den, badu bestelako esanahi bat: honen arabera, eskaria egin zutenen artean gutxi dira sukaldari ezgaiak direnak. Adiera honetan, esaldia beste honen pareko da (Herburger, 2000: 127.orr.):

- (52) a. Few cooks that applied were incompetent
b. [Few(x): Applied (x) & Cook(x)] Incompetent(x) & Applied(x) & Cook(x)

(52b)-ek esaten du kontestualki mugaturiko gertakari batean, eskaria egin zuten sukaldari gutxi zirela sukaldari ezgaiak. Deskriptiboki, zenbatzaile sintagmaren barneko fokoak osatzen du determinatzailearen besarkadura, eta fokoa ez den gainerakoak haren murriztapena. Hirugarren irakurketa hau gainera, zenbatzaile ahul deituak izan direnekin eta testuinguru jakin batzuetan bakarrik lortu daiteke. Herburger-en ustez, fokoak birmoldaturiko irakurketa hauetan, zenbatzaileak zenbaketa adberbio batek bezala jokatu du. Gauza jakina da zenbaketa adberbioek foko egituraren arabera moldatzen dituztela haien murriztapen eta besarkadurak:

- (53) a. Members of minorities rarely trust THE POLICE
b. MEMBERS OF MINORITIES rarely trust the police
- (54) a. [Few(x): members of minorities (x) & trust (x, someone)] trust (x, the police)
b. [Few (x): trust (x, the police)] members of minorities (x)

Nola gertatzen da hau? Herburger-en arabera, zenbatzaile ahulak bereizi egiten dira forma logikoan beren izenezko osagarritik "Q-raising" (zenbatzaile-igoera) deitzen duen prozesu baten bitartez:

- (55) [D_i [[_{XP} t_i NP] YP]]
- (56) a. [Few INCOMPETENT cooks] [applied] (azaleko sintaxi-egitura)
b. [Few [INCOMPETENT cooks applied]] (zenbatzaile-igoera)
d. [[Few cooks applied] [INCOMPETENT cooks applied]] (foko-birmoldaketa)
e. [Few(x): Applied (x) & Cook(x)] Incompetent(x) & Applied(x) & Cook(x)

9.1. Herburger-en analisiak ez ditu komunztaduragabeen propietateak azaltzen

9.1.1. Zenbatzaile ahul komunztaduragabe guztiak ezin dira adberbio gisa erabili

Herburger-en esanetan, zenbatzaile ahulen igoerak zenbatzaileak adberbio bilakatzen ditu. Komunztatzeko eta ez komunztatzeko alternantzia jasaten duten euskarako zenbatzaile gehienak adberbio bezala ere erabili daitezke:

- (57) a. Jonek asko/anitz jaten du
b. Jonek pilo bat jaten du
d. Txanponak ugari aurkitzen dira lurrean
e. Errealak gehiegi barkatu du atzealdean

Ez ordea guztiak:

- (58) * Txanponak hainbat/zenbait aurkitzen dira lurrean

Ohar gaitezen baita ere, ingeleseko *zenbatzaile igoera* onartzen duten zenbatzaile ahulak ezin daitezkeela adberbio moduan erabili.

- (59) a. * Jon eats many
b. * Jon eats few
d. * Jon eats some

9.1.2. Zenbatzaile komunztaduragabeak ez dira beti foko posizioan agertzen

Euskarako zenbatzaile komunztaduragabeek ez dute zertan beti foko posizioan agertu beharrik. Euskaraz, aditz aurreko posizioa da foko posizioa; honek gainera aldaketa dakar hitz-hurrenkeran SOV-tik SVO-ra (ikus beste askoren artean Altube 1929, De Rijk, 1978; Eguzkitza 1986, Ortiz de Urbina 1983, 1999; baina baita Hidalgo 1995 ere, ikuspegi kontrajarri baterako).

- (60) a. * [JULENEK]_{fok} txirrindua hautsi du.
b. Txirrindua [JULENEK]_{fok} hautsi du.
d. [JULENEK]_{fok} hautsi du txirrindua.

Hau ez da nahita ez zenbatzaile ahul komunztaduragabeen agertu beharreko tokia.

- (61) a. Hainbat ikaslek arazoak izango ditu aurtan
b. Zenbait artistak ez daki zer egin bere diruarekin
d. Ikasle asko berandu etorri da gaur

Adibide hauetan guztietan, zenbatzailea ez da aditz aurrean agertzen eta esaldia erabat gramatikala da. Foko posizioan agertzea baitezpadakoa denean, arrazoiak bestelakoak dira (ikus Etxepare, 2003a):

- (62) a. Ikasle gutxi etorri da berandu gaur
b. * Ikasle gutxi berandu etorri da gaur

9.1.3. “Fokoak birmoldaturiko irakurketa” ez da komunztaduragabeen propietate hutsa

Herburger-en analisisia erabiliz gero argitu nahi ditugun datuen berri emateko gutxienez arazo bat sortzen zaigu (ikus 10. atalaren bukaeran *oharra 1* non beste arazo bat aurkezten den). Izan ere, irakurketa hau ez da komunztaduragabetasunak ematen digun zerbait (i.e. ez da komunztatzen ez diren zenbatzaile ahulen propietate bereizle bat) eta zenbatzaile ahul komunztaduradunak “fokoak birmoldaturiko irakurketa” hau lortzeko arazorik ez dute. Horretarako, izena (edo izenarekin agertzen den adjektibo bat) foko posizioan agertzearekin nahikoa da. (63a) eta (64a)-ren fokoak birmoldaturiko irakurketak (63b-64b) adibideetan eskaintzen direnak lirateke.

- (63) a. SUKALDARI_{fok} gutxi egin dute eskaria
 b. Eskaria egin dutenetatik gutxi dira sukaldariak
- (64) a. Sukaldari EUSKALDUN_{fok} gutxi egin dute eskaria
 b. Eskaria egin dutenetatik sukaldari gutxi dira sukaldari euskaldunak

Zenbatzaile komunztaduradunak irakurketa hau lortzeko gai badira, hauen eta komunztaduragabeen arteko desberdintasunak nondik datozen azaltzeko ahalmena galtzen dugu. Erantzun gabeko galderen artean hau legoke: zerk bultzatzen ditu zenbatzaile komunztaduragabeek aditzarekiko erakusten dituzten murriztapenak (i.e. predikatu kolektiboekin, predikatu kategorikoekin eta behin bakarrik gerta daitezkeen gertakariak denotatzen dituzten predikatuekin ezin agertua)?

Aipatu berri ditugun propietate hauek ikusita hauxe da ondoriozta genezakeena: komunztadura eza ez da fokoak birmoldaturiko irakurketen erantzule.

Hurrengo ataletan zenbatzaile ahul komunztaduragabeek aditzarekiko erakusten dituzten murriztapenak zeren ondorio diren azaltzen saiatuko gara. Horren aurretik halere, goazen beste hizkuntzetan antzeko propietateak erakusten dituen egiturarik ba ote den ikustera.

10. ...eta beste hizkuntzetan zer?

Ez dugu aurkitu (momentuz) beste hizkuntzarik non komunztadura ezak (zenbatzaile ahulekin) euskaraz bezalako efektuak bultzatzen dituen. Hala ere, badira euskaraz zenbatzaile komunztaduragabeek aditzaren gainean bultzatzen dituzten efektu berdinak beste modu batean lortzen dituzten hizkuntzak.

Japonieraz adibidez neurri sintagma moduan ezagutzen direnak¹³ bi modutara erabili daitezke. Neurria (edo kardinaltasuna) adierazten duen hitza izenaren aldamenean edo izenarengandik aldendua agertu daiteke: (65a) eta (66a) adibideetan neurri sintagma eta izena bata bestearen aldamenean agertzen dira, eta hauek *banatu-gabeko neurri sintagma* (non-split Measure Phrase) deitzen dira. (65b) eta (66b)-n egitura konplexuago bat dugu non neurri sintagma ez den izenaren aldamenean agertzen, eta hauek *banatutako neurri sintagma* (split Measure Phrase) dute izena.

Japoniera:

- (65) a. [Gakusei san-nin]-ga ie-ni kaet-ta
 [ikasle hiru-CL]-nom etxe-ra joan-irag.
 ‘Hiru ikasle etxera joan ziren’

¹³ Hauen artean numeralak (*bi, hiru*, e.a.), neurri bat adierazten duten elementuak (*bi litro, zazpi kilo*, e.a.) eta zenbatzaile ahulak (*asko, gutxi, hainbat*, e.a.) sartu behar dira.

- b. **Gakusei**-ga ie-ni **san-nin** kaet-ta
 ikasle-nom etxe-ra hiru-CL joan-irag.
- (66) a. [**Mizu san-rittoru**]-ga tukue-nouede kobore-ta
 [ur hiru-litro]-nom mahai-ines isuri-irag.
 ‘Hiru litro ur mahaia gainera isuri ziren’
- b. **Mizu**-ga tukue-nouede **san-rittoru** kobore-ta
 ur-nom mahai-ines hiru-litro isuri-irag.

Badaude desberdintasun batzuk (65-66)-ko bi egituren (banatu-gabeko eta banatutako neurri sintagmen) artean, izan ere, banatu gabeak edozein aditz sintagmekin agertzeko gai diren bitartean, banatuek badituzte murriztapen batzuk:¹⁴

(i) Banatutako neurri sintagmak ezin daitezke agertu behin bakarrik gerta daitezkeen gertakariak denotatzen dituzten aditzekin:

- (67) a. [**Gakusei san-nin**]-ga kinoo Peter-o korosi-ta
 [ikasle hiru-CL]-nom atzo Peter-akus hil-irag
 ‘Hiru ikaslek Peter hil zuten atzo’
- b. ?? **Gakusei**-ga kinoo **san-nin** Peter-o korosi-ta
 ikasle-nom atzo hiru-CL Peter-akus hil-irag.
- (68) a. [**Gakusei san-nin**]-ga kinoo Peter-o tatai-ta
 [ikasle hiru-CL]-nom atzo Peter-akus jo-irag
 ‘Hiru ikaslek Peter jo zuten atzo’
- b. **Gakusei**-ga kinoo **san-nin** Peter-o tatai-ta
 ikasle-nom atzo hiru-CL Peter-akus jo-irag.

(ii) Banatutako neurri sintagmak ezin agertu daitezke predikatu kategorikoekin konbinatuta, predikatu thetikoekin konbinatzeko arazorik ez duten bitartean:

- (69) a. Uti-no doobutuen-de-wa **kaba**-ga mada **san-too** genki-dearu.
 gure zoo-ines-top hipopotamo-nom oraindik hiru-CL osasuntsu
 ‘Gure zooan, hiru hipopotamo osasuntsu daude oraindik’
- b. * Uti-no doobutuen-de-wa **kaba**-ga zannennakotoni **san-too** osu-dearu.
 gure zoo-ines-top hipo-nom zoritxarrez hiru-CL ar
 ‘Gure zooan, zoritxarrez, hiru hipopotamo arrak dira’
- (70) a. Uti-no doobutuen-de-wa [kaba san-too]-ga mada genki-dearu.
 gure zoo-ines-top [hipo hiru-CL]-nom oraindik osasuntsu
- b. Uti-no doobutuen-de-wa [kaba san-too]-ga zannennakotoni osu-dearu.
 gure zoo-ines-top [hipo three-CL]-nom zoritxarrez ar

(iii) Banatutako neurri sintagmek irakurketa kolektiborik ez dute onartzen eta irakurketa distributiboak bultzatzen dituzte:

- (71) a. [Otokonoko san-nin]-ga kinoo isu-o tukut-ta

¹⁴ Murriztapen hauek ez dira banatutako neurri sintagma izatearen eta izenaren ondoan ez agertzearen ondorio soila. Izan ere, ohar zaitezte banatutako neurri sintagmek ere klasifikatzaile (glosetan CL bezala adierazia) deituarekin agertzen direla eta klasifikatzaileak izenarekiko harreman zuzena adierazten duela honen masa edo zenbagarri izaera erakutsiz.

- [mutil hiru-CL]-nom atzo aulki-akus egin-irag
 ‘Hiru mutilek aulki bat/aulkiak egin zuten/zituzten atzo’
 √ kolektiboa
 √ distributiboa
- b. **Otokonoko**-ga kinoo **san-nin** isu-o tukut-ta
 mutil-nom atzo hiru-CL aulki-akus egin-irag
 * kolektiboa
 √ distributiboa
- (72) a. [Tomodati huta-ri]-ga kyonen kekkonsi-ta
 [lagun bi-CL]-nom iaz ezkondu-irag
 ‘Bi lagun iaz ezkondu ziren’
 √ kolektiboa = bikote bakar bat
 √ distributiboa = bi bikote
- b. **Tomodati**-ga kyonen **huta-ri** kekkonsi-ta
 lagun-nom iaz bi-CL ezkondu-irag
 * kolektiboa = bikote bakar bat
 √ distributiboa = bi bikote

Japonieran ikusi ditugun banatu gabeko eta banatutako neurri sintagmak beste hizkuntza batzuetan ere aurkitzen ditugu, hala nola, alemanez, grekeraz edo katalanez. Alemaneko *banatutako neurri sintagma* hauek **banatutako topikalizazio** (split topicalization) deituak ere izan dira. Izan ere, kasu hauetan, izena topiko posiziora mugitzen dela asumitu izan da (topiko kontrastibo deituan bihurtuz) zenbatzaile ahula foko posizioan geldituko litzatekeen bitartean (ikus Krifka 1998, Nakanishi 2004, 2007). Japonierako kasuentzat ere antzeko zerbait proposatu izan da, halere, kasu horietan, topikoak ez du zertan kontrastiboa izan behar (honetan ez datoz denak bat, ikus Takimi 2001).

Alemana:

- (73) a. [Drei Studenten] haben gestern getanzt.
 [hiru ikasle.pl] have atzo dantza egin.irag
 ‘Hiru ikaslek dantza egin zuten atzo’
 b. **Studenten** haben gestern **drei** getanzt.
 ikasle.pl have atzo hiru dantza egin.irag
- (74) a. [Viele Bücher] hat er viele gekauft
 asko liburu.pl has bera asko erosi.irag
 ‘Berak liburu asko erosi zituen’
 b. **Bücher** hat er **viele** gekauft
 liburu.pl has bera asko erosi.irag

(i) ezin agertu daitezke behin bakarrik gerta daitezkeen gertakariak denotatzen dituzten aditzekin

- (75) a. [Drei Studenten] haben Peter geschlagen.
 [hiru ikasle.pl] have Peter jo.irag
 ‘Hiru ikaslek Peter jo zuten’
 b. **Studenten** haben Peter **drei** geschlagen.
 ikasle.pl have Peter hiru jo.irag

- (76) a. [Drei Studenten] haben Peter umgebracht
 [hiru ikasle.pl] have Peter hil.irag
 ‘Hiru ikaslek Peter hil zuten’
 b. ?? **Studenten** haben Peter **drei** umgebracht.
 ikasle.pl have Peter hiru hil.irag

(ii) ezin agertu daitezke predikatu kategorikoekin konbinatuta

- (77) a. **Wildschweine** sind **viele** verfügbar.
 basurde.pl izan asko erabilgarri
 ‘Basurdez ari garela, asko daude erabilgarri’
 b. * **Wildschweine** sind **viele** intelligent.
 basurde.pl izan asko azkar
 ‘Basurdez ari garela, asko dira azkarrak’ (Diesing 1992:40)

(iii) irakurketa kolektiborik ez dute onartzen

- (78) a. [Drei Jungen] haben ein Modellboot gebaut.
 [hiru mutil.pl] have bat untzi eraiki
 ‘Hiru mutilek untzi bat eraiki dute’
 √ kolektiboa
 √ distributiboa
 b. **Jungen** haben **drei** ein Modellboot gebaut.
 mutil.pl have hiru bat untzi eraiki
 * kolektiboa
 √ distributiboa

Greker¹⁵:

- (79) a. [**Tris fitites**] htipisan ti mitera tu Petru.
 [hiru ikasle.pl] jo.3pl D ama D Peter.gen
 ‘Hiru ikaslek Peteren ama jo zuten.’
 b. **Fitites** htipisan **tris** ti mitera tu Petru.
 ikasle.pl jo.3pl hiru D ama D Peter.gen
 (80) a. [**Tris fitites**] skotosan ti mitera tu Petru.
 [hiru ikasle.pl] hil.3pl D ama D Peter.gen
 ‘Hiru ikaslek Peteren ama hil zuten.’
 b. ?? **Fitites** skotosan **tris** ti mitera tu Petru.
 ikasle.pl hil.3pl hiru D ama D Peter.gen

Katalana:

- (81) a. [**Tres estudiants**] han colpejat el Pere.
 [hiru ikasle.pl] have jo D Pere
 ‘Hiru ikaslek Pere jo zuten.’
 b. **D’estudiants**, han colpejat el Pere **tres**.
 part-ikasle.pl have jo D Pere hiru
 (82) a. [**Tres estudiants**] han matat el Pere.

¹⁵ Ez ditugu hemen greker eta katalaneko banatutako neurri sintagmek aditzarekiko erakusten dituzten murriztapen guztien adibideak emango. Ikus horretarako Nakanishi (2004).

- [hiru ikasle.pl] have hil D Pere
 ‘Hiru ikaslek Pere hil zuten’
 b. ?? **D’estudiants**, han matat el Pere tres.
 part-ikasle.pl have hil D Pere hir

Hurrengo atalean gure datuen berri ematera pasa aurretik, bi ohar egin nahi genituzke:

Oharra 1: Euskararen komunztaduragabeko zenbatzaile ahulak eta alemaneko banatutako topikalizazioak (baita akaso japoniera, grekera eta katalanekoak) kasu berdinak baldin badira; ondoriozta genezake euskarako tratatzen ari garen datuak ezingo liratekeela Herburger-en analisiaren bitartez azaldu. Herburger-en analisisian fokalizatua agertzen den elementuak izena edo izenarekin agertzen den adjektiboa behar du izan (i) adibidean erakusten den bezala, eta ez zenbatzaile ahula, euskarako kasuetan gertatuko litzatekeenaren moduan, ikus (ii).

- (i) Few INCOMPETENT_{fok} cooks applied (=51b)
 (ii) Ikasle ASKO etorri da gaur

Oharra 2: Banatutako neurri sintagmak (eta banatutako topikalizazioek) Krifka-k (1990) tratatzen dituen *gertakarien gaineko irakurketak* (*event-related readings*) deituekin antza dutela pentsa genezake. Krifka ohartzen da (iii) bezalako esaldiek 4000 itsasontziren existentzia auresuposatzen duen irakurketaz gain baduela bigarren irakurketa bat non 4000-k gertakarien kantitateari egiten dion erreferentzia (i.e. gerta liteke 4000 itsasontzi desberdin baino gutxiago pasa izana portutik).

- (iii) Four thousand ships passed through the lock last year

Antzekotasunik baden arren, gu tratatzen ari garen kasuak ezin daitezke Krifka-ren kasuekin parekatu arrazoi desberdinengatik:

- (a) alemaneko (eta beste hizkuntzetako) banatutako neurri sintagmez aparte, banatugabeko neurri sintagmek ere lor dezakete Krifka-k aipatzen duen irakurketa hau,
 (b) euskarazko numeralek ere lor ditzakete irakurketa hauek (*4000 itsasontzi sartu dira gaur portuan*); baina zenbatzaile ahul hauek komunztaduraren beharra dute esaldia gramatikala izan behar bada (**4000 itsasontzi sartu da gaur portuan*). Komunztatzen diren zenbatzaile ahulek ere ez dute arazorik irakurketa hauek lortzeko (*Itsasontzi asko sartu da gaur portuan*). Beraz, hauentzako proposatu genezakeen analisi batek komunztatzen ez diren zenbatzaileen portaera eta komunztaduradunekiko desberdintasunak azaldu gabe utziko litzuzke.

11. Nola eman komunztatzen ez diren zenbatzaileen propietateen berri?

11.1. Izenaren gaineko monotonizitatea

Zenbatzaile ahulek (orokorrean) izenaren gaineko murriztapen batzuk erakusten dituzte.


- (83) a. hiru litro ardo
b. * hiru gradu ardo
- (84) a. three litres of wine / * three degrees of wine
b. tres litros de vino / * tres grados de vino

Schwarzschild-ek (2002) dio murriztapen hauek zenbatzaileak (berak μ neurri funtzioak deitzen dituen, *hiru litro* eta horrelakoekin batera) izenari nola aplikatzen zaizkion ikusiz azaldu daitezkeela. Neurri funtzio bat neurri sintagma baten eta hau aplikatzen zaion izenaren arteko neurtzeko eskema bat da (e.g. temperatura, zabalera, kantitatea, tamaina, bolumena). Schwarzschild-en arabera, izenari aplikatzen zaizkion μ neurri funtzioak *monotonikoak* izan behar dute. Monotonikoa izateko neurri funtzio batek elementu baten parte-osotasun egitura mantendu behar du.

- (85) μ neurketa funtzio bat monotonikoa da I eremu jakin bati dagokionez baldin:
(i) I eremuan bi indibiduo badira, x eta y, non x y-ren azpiatal bat den, eta
(ii) $\mu(x) < \mu(y)$

Monotonizitatearen propietatearen bitartez (83-84)-ko kontrastea azaltzeko gai gara. *Hiru litro ardo* bezalako zerbaitetan, μ : bolumena [[ardo]] izenarekiko monotonikoa da. Izan ere, kasu honetan egia da ardo azpi-atal batek bolumen txikiagoa izango duela, eta ardo gain-atal batek bolumen handiagoa izango duela. Aldiz, μ : temperatura baldin bada, ez da egia ardo kantitate gutxiagok, i.e. azpi-atal batek, temperatura baxuagoa izango duenik, ezta ardo kantitate handiago batek temperatura altuagoa izango duenik ere. Ondorioz, [[ardo]] izenarekiko μ : bolumena monotonikoa den bitartean, μ : temperatura ez da monotonikoa, eta hemendik jarraitzen da (83b) eta (84b) esaldien ez-gramatikaltasuna.

Izen batek parte-osotasun egitura bat duela adierazteko moduetako bat *saretxo* (lattice) egitura bitartez da (Link 1983). Saretxo bat partzialki ordenaturiko multzo bat da; adibidez (86) adibidean x, y eta z indibiduo atomikoak izango dira, \cup_1 indibiduo batuketa operatzaile bat da, eta marrek *-ren parte* antolaketa bat adierazten dute \leq .



Izen baten hedadura semantikoa indibiduen saretxo bat baldin bada, izenaren denotazioaren kide batzuk beste kide batzuen azpi-atal izango dira. Adibidez, x, y eta z *ardoa* baldin badira,¹⁶ hauen batuketek ere $\{x \cup_1 y, x \cup_1 z, y \cup_1 z, x \cup_1 y \cup_1 z\}$ *ardoa* izaten jarraituko dute. Izenaren denotazioa $\{x, y, z, x \cup_1 y, x \cup_1 z, y \cup_1 z, x \cup_1 y \cup_1 z\}$ baldin bada,

¹⁶ Ikus Chierchia (1998), non masa izenek ere izaera atomikoa dutela erakusten den.

bere kideak *parte* erlazio batean antolatu daitezke (e.g. $x \cup_I y$ denotazioko beste kide baten $x \cup_I y \cup_I z$ azpi-parte/atal izango da).

Ohar gaitetzke, izenaren gaineko murriztapen hauek komunztatzen zein komunztatzen ez diren zenbatzaileei aplikatzen zaizkiela, izan ere biek portaera berdina erakusten dute kasu hauetan. Beraz, ez ditu murriztapen honek zenbatzaile mota hauen arteko desberdintasunik erakusten.

11.2. Aditzaren gaineko monotonizitatea


Lehenago ikusi dugu (8. atala eta aurrekoak) komunztatzen diren eta komunztatzen ez diren zenbatzaile ahulen artean badirela desberdintasun batzuk aditz sintagma desberdinekin konbinatzeko garaian. Komunztatzen ez diren zenbatzaileek murriztapen batzuk erakusten dituzte:


- (87) a. Gertakari bakarra denotatzen duten aditz sintagmekin
- (i) Ume askok hautsi dute hondar-gaztelua
 - (ii) * Ume askok hautsi du hondar-gaztelua
- b. Predikatu kategorikoekin
- (i) Ikasle asko altuak/azkarrak/argiak dira
 - (ii) * Ikasle asko altua/azkarra/argia da
- cf. Ikasle askok daki biderkatze taula erabiltzen
- d. Irakurketa distributibo/kolektiboak bultzatzen dituzten predikatuekin
- (i) Lantegian, langile asko batzartu ziren
 - (ii) * Lantegian, langile asko batzartu zen

Nakanishi-ri (2007) jarraituz, aditzak ere, izenekin egin dugun bezalaxe, parte-osotasun egitura baten bitartez adierazi genitzake. Aditzen kasuan, zera asumitzen dugu: aditz baten denotazioak gertakari argumentu bat (*e* bezala adierazia) daukala barnean (Davidson 1967) eta neurri funtzioa aditz sintagma horren hedaduraren gertakari bati aplikatzen zaiola. Ondorioz, izenetan bezala, μ neurri funtzioak monotonikoa izan beharko du aditz sintagmak ematen digun parte-osotasun egiturarekiko.

- (88) μ neurketa funtzio bat monotonikoa da E eremuari dagokionez baldin:
- (i) E eremuan bi gertakari badaude e_1 eta e_2 non $e_1 \subseteq e_2$ -ren azpi-atal bat den, eta
 - (ii) $\mu(e_1) \leq \mu(e_2)$

Gauzak horrela, aditz sintagma baten denotazioa partzialki ordenaturiko gertakarien saretxo bat izango da, (89)-n adierazten den bezala: e_1, e_2 eta e_3 gertakari singularrak izango dira, \cup_E gertakari batuketa operatzaile bat da, eta marrek *-ren parte* antolaketa bat adierazten dute \leq .





Izenekin gertatzen den bezalaxe (hauen kasuan indibiduen saretxo bat izango dugu), aditz sintagma baten hedadura semantikoa gertakari saretxo bat baldin bada, aditzaren denotazioaren kide batzuk beste kide batzuen azpi-atal izateko aukera izango dute. Adibidez, e_1 , e_2 eta e_3 gertakariak baldin badira, hauen batuketek ere $\{e_1 \cup_{E} e_2, e_1 \cup_{E} e_3, e_2 \cup_{E} e_3, e_1 \cup_{E} e_2 \cup_{E} e_3\}$ gertakari izaten jarraituko dute. Aditz baten denotazioa $\{e_1, e_2, e_3, e_1 \cup_{E} e_2, e_1 \cup_{E} e_3, e_2 \cup_{E} e_3, e_1 \cup_{E} e_2 \cup_{E} e_3\}$ baldin bada, bere kideak *-ren parte* erlazio batean antolatu daitezke (e.g. $e_1 \cup_{E} e_2$ denotazioko beste kide baten $e_1 \cup_{E} e_2 \cup_{E} e_3$ azpi-parte izango da).

Aditzek (89) bezalako gertakari saretxo bat denotatzen dutela onartuz, monotonizitatearen propietatea *astoa jo* (edo *manifestaria kolpatu*) eta *astoa hil* (edo *hondar-gaztelua hautsi*) bezalako aditzen eta hauek zenbatzaile batzuekin konbinatzeko edo ez konbinatzeko duten aukeraren berri emateko gai da. *Astoa jo* aditz ateliko bat izango da (deskribatzen duen gertakariak bukaera punturik ez duen predikatu bat) eta ondorioz gertakari saretxo bat denotatzen duela esan genezake. Izan ere, *astoa jo* aditz sintagma bata bestearen azpi-atal diren bi gertakari denotatu ditzake. Gertakari saretxo bat denotatzeko gai bada aditz ateliko bat, aplikatuko zaion neurri sintagma (kasu honetan μ : kardinalitatea litzateke) monotonikoa izango da parte-osotasun egiturarekiko. *Astoa hil* bezalako aditz sintagma bat aldiz predikatu teliko bat izango da (deskribatzen duen gertakariak bukaera puntua duen predikatu bat) eta *astoa hil* aditzak ez du parte-osotasun xume bat baino denotatuko; izan ere, *astoa hil* gisako gertakari batek ez du bere azpi-gertakari izango den beste *astoa hil* gisako gertakaririk izango. Honen ondorio da, μ : kardinalitatea bezalako neurri funtzio bat *astoa jo* bezalako aditz batekiko monotonikoa izatea; *astoa hil* bezalako aditz batekiko ez monotonikoa izango den bitartean.

Predikatu kategorikoekiko zenbatzaile komunztaduragabeek duten murriztapena ere azal daiteke monotonizitatearen propietatearekin. Kratzer-ek (1995) predikatu kategorikoen eta thetikoen arteko desberdintasuna gertakari argumentu bat edukitzean edo ez edukitzean zegoela argudiatu zuen: thetikoez gertakari argumentua dute, ez ordea kategorikoez. Predikatu kategorikoez gertakari argumenturik ez badute, aditz sintagma horrek ez du aukerarik gertakarien parte-osotasun erlazio bat sortzeko, eta ondorioz monotonikoki aplikatuko litzaiokeen neurri sintagmarik ez da egongo.

Azkenik, zenbatzaile komunztaduragabeak irakurketa distributiboak bultzatzen dituztela ikusi dugu. *Mutilek aulki bat egin zuten* bezalako esaldi baten irakurketa distributiboaren pean pentsa genezake aulkia-bat-egin gertakari asko leudekeela eta gertakari bakoitzak mutil desberdin bat hartzen duela egile moduan. Hemendik jarraitzen dena da irakurketa distributiboan aditzak parte-osotasun egitura bat edukiko duela. Aldiz, irakurketa kolektiboan, aulki-bat-egin gertakari bakarra egongo da eta mutilak egile talde bakar bezala hartuko genituzke. Kasu hauek *astoa hil* eta horrelakoen parekoak dira, eta aditz hauen denotazioak ez dute neurri sintagma bat monotonikoki aplikatzeko behar duen parte-osotasun egiturarik.

Aditzaren gaineko monotonizitate murriztapen honek azaldu bi gauza azaldu ditzake beraz (i) (87)-ko murriztapenak nondik letozkeen eta (ii) zergatik komunztatzen ez diren zenbatzaile ahulak parte-osotasun egitura denotatzen duten aditzekin konbina daitezkeen komunztatzen direnak aditz mota guztiekin konbinatu daitezkeen bitartean.

Azken hauek (komunztaduragabeek ez bezala) ez dute aditz sintagmarekiko monotonizitate murriztapena bete beharrik.

11.3. Homomorfismoa (Nakanishi 2004, 2007)

Ikusi eta erakutsi dugu dagoeneko euskarazko zenbatzaile ahul komunztaduragabeek (berdin gertatzen da japonierako, alemaneko, grekerako eta katalaneko *banatutako neurri sintagmekin*) izenaren gaineko zenbaketa egiteaz gain aditzaren gaineko zenbaketa ere egiten dutela (ikus (46) eta (47) adibideak).

Erantzun beharreko galdera ondorengoa da: Nola azaldu daiteke zenbatzaile bat aldi berean izenei eta aditzei aplikatzea? Nakanishi-k (2007), japonierako datuen berri emateko gertakarien eta indibiduen arteko islapen mekanismo bat proposatzen du. Islatze prozesu honen bitartez, neurri funtzioa gertakarietatik proiektatzen diren indibiduoari aplikatzen zaie. Modu honetara, banatutako neurri sintagmak zeharka zenbatzen ditu gertakariak indibiduoak zenbatuaz. Mekanismo berdina aplikatuko dugu euskarazko kasuetan.

Krifka-k (1989) denborazko adberbioen (e.g. *John slept for two hours*) portaera azaltzeko, gertakarien eta denbora tarteen arteko homomorfismo funtzio bat proposatzen du. Izan ere, Krifka-ren ustez, denborazko adberbioak ezin zaizkie gertakariari zuzenean ezarri, baina bai gertakariarekin harremana duten beste entitate batzuei: denbora tarteei. Horrela, *bi orduz* bezalako adberbio batek zeharka neurtzen du lo-egite gertakaria, gertakariaren denbora iraupena neurtuz. Formalki, Krifka-k, (90)-n adierazten den bezala, E gertakarien multzotik T denbora tarteen multzora h homomorfismo bat badela asumitzen du, non $h(e_1 \cup_E e_2) = h(e_1) \cup_T h(e_2)$, \cup_E eta \cup_T gertakari eta denborentzako batuketa operatzaileak direlarik. (90)-ko adibidean ikusi dezakegun bezala, h homomorfismo bat domeinuan (domain) eta barrutian (range) antzeko erlazioak mantentzen dituen funtzio bat da.

$$(90) \quad E \xrightarrow{h} T \quad \text{non } h(e_1 \cup_E e_2) = h(e_1) \cup_T h(e_2)$$

Krifka-k argudiatzen du denborentzako μ neurri funtzio bat eta E-tik T-rako h homomorfismo funtzio bat ditugunean, μ' neurri funtzio deribatu bat sortu dezakegula gertakariarentzako, (91)-n adierazten den bezala.

$$(91) \quad \forall e [\mu'(e) = \mu(h(e))] \quad (\text{Krifka 1989: 97})$$

Neurri funtzio deribatu bat jatorrizko aplikazio domeinutik desberdintzen den domeinu batentzako erabiltzen den neurri funtzio bat da (e.g. denbora tarteenentzako den baina gertakariarentzako erabiltzen den neurri funtzio bat). Honela, (91)-n adierazten den bezala, gertakariarentzako μ' neurri funtzioa μ eta h bitartez definitu dezakegu: gertakari guztientzat, μ' funtzioak E-n neurtzen duen e gertakariaren kantitatea μ funtzioak T-n neurtzen dituen $h(e)$ -ren kantitatearekin berdintzen da.


Nakanishi-k (2007) Krifka-ren analisi hau banatutako neurri sintagmetara zabaltzen du eta guk Nakanishi-k proposatua euskarako komunztaduragabekoen portaera azaltzeko erabiliko dugu.

Nakanishi-k aditz sintagmak denotatzen dituen E-ko gertakarietatik izenak denotatzen dituen I-ko indibiduoetara h homomorfismo bat dagoela argudiatzen du, $h(e_1 \cup_E e_2) =$


$h(e_1) \cup_1 h(e_2)$ betez. Honela beraz, komunztatzen ez diren euskarako zenbatzaile ahulen datuak ikusita badakigu indibiduoari aplikatzen zaien neurri funtzio bat badela. Krifkari jarraituz, indibiduoentzako μ neurri funtzio bat eta E-tik I-rako h homomorfismo bat baldin baditugu, E gertakarietarako μ' neurri funtzio bat deribatu dezakegu.

(92)-ko adibidean, komunztatzen diren zenbatzaileei lotutako μ neurri funtzio bat eremu griseko indibiduoari aplikatzen zaie; hemen, monotonizitate murriztapena indibiduoaren saretxo bati aplikatzen zaio kantitate neurruak bueltatuz. Aldiz, (93) adibidean, komunztatzen ez diren zenbatzaileei lotutako μ' neurri funtzio bat eremu griseko gertakariari aplikatzen zaie kantitate neurruak bueltatuz. (91)-n azaldua gogoratzen badugu, (93)-eko gertakarietarako deribatutako μ' neurri funtzioa $\mu(h(e))$ -ren pareko da, eta ondorioz, (93)-eko neurketa (94)-n bezala irudika daiteke. Beste modu batetara esanda, gertakarietarako deribatutako μ' neurri funtzio bat h homomorfismoaren eta indibiduoentzako μ neurri funtzio baten konbinaketa bat da. Gertakariak indibiduoetara proiektatuz eta proiektzio horren barrutia (grisez (94)-en) neurtuz, μ -k aldi berean indibiduoak (μ neurri funtzioa $h(e)$ -tik ateratzen denari aplikatzen baitzaio) eta gertakariak (deribatutako μ' neurri funtzioa e -ri aplikatzen baitzaio) zenbatzen ditu; hau da, komunztaduragabeek gertakariak zeharka zenbatzen dituzte indibiduoak zenbatuz. Hemendik jarraitzen dena da μ -k zerbaiten gainean monotoniko izan behar badu gertakarietatik proiektatutako indibiduoaren domeinuarekiko izan behar duela.


(92) Komunztatzen diren zenbatzaileei lotutako neurri sintagma



(93) Komunztatzen ez diren zenbatzaileei lotutako neurri sintagma



(94) Komunztatzen ez diren zenbatzaileei lotutako neurri sintagma



Proposamen hau onartuta, aldaera bat dago aurretik aipatu dugun aditzarekiko murriztapenaz ari garenean: orain arte zenbatzaile komunztaduragabeak monotonikoak izan behar zuten aditzaren esanahiak eman zezakeen parte-osotasun egiturarekiko, hau da, gertakariarekiko. Orain ordea, zenbatzaileak aditzaren domeinutik proiektatu edo eratorritako izenaren domeinuarekiko izan behar du monotonikoa.

Ikus dezagun bada, murriztapenen berri nola eman dezakegun. Zenbatzaile komunztaduragabeek behin bakarrik gerta daitezkeen gertakariak denotatzen dituzten aditzekin ezin konbinatu izatea berdin azaldu daiteke. Bateriaezintasuna h homomorfismoaren barrutiarekiko eman behar den monotonizitatearen ondorio izango da. Zehazki, gertakarietatik h funtzioaren bitartez proiektatzen diren indibiduoek parte-osotasun egitura bat eduki behar dute, gero egitura honi neurri sintagma (zenbatzailea) monotonikoki aplikatuko zaiolarik. Behin bakarrik gerta daitezkeen gertakariak denotatzen dituzten aditzekin, h -ren domeinuak (i.e. aditz sintagmaren denotazioak)

elementu bakar bat izango duenez, h -ren barrutiak ere elementu bakar bat izango du h egitura mantentzen duen funtzio bat baita. Horrela, zenbatzailea ez da h -ren barrutiarekiko monotonikoa izango.

Komunztaduragabeak predikatu kategorikoekin ez agertzearen murriztapena aurretik azalduaren bidetik doa. Predikatu klase hauek gertakari argumenturik ez badute, gertakariak domeinu bezala hartuko dituen h funtziorik ere ez da egongo.


Azkenik, badakigu komunztaduragabeek irakurketa distributiboak bultzatzen dituztela, irakurketa kolektiboak onartzen ez dituzten bitartean.¹⁷

(95) Mutil askok aulki bat egin zuen

* kolektiboa

√ distributiboa

Suposa dezagun *aulki bat egin* bezalako aditz bat pluralizatu eta aulki-bat-egin gertakarien saretxo bat sortzen duela, eta gertakarien saretxo honetatik mutilez (indibiduoetz) osatutako beste saretxo batetara h homomorfismo bat dagoela.



Honela μ : kardinalitatea h -ren barrutiari aplikatzen zaio, hau da, $x, y, z, x \cup y, x \cup z, y \cup z, x \cup y \cup z$ elementuak barruan dituen indibiduo multzo bati, (96)-ko eskuineko saretxoari. Monotonizitatea μ funtzioa saretxo honekiko monotonikoa izatea eskatzen du. h homomorfismoak gertakarien parte-osotasun egitura mantentzen duenez, monotonizitatea bete egiten da. (95) bezalako esaldi batean zenbatzaile komunztaduragabeak gertakarien kardinaltasuna *asko* dela zehazten du (demagun $e_1 \cup e_2 \cup e_3$ gertakari *asko* denotatzen dituela), eta hau $x \cup y \cup z$ indibiduoetara proiektatzen da. $x \cup y \cup z$ dituen indibiduo bat x, y, z indibiduoetz osatua dago, eta hauetako bakoitza aulki-bat-egin e_1, e_2, e_3 gertakari atomikoen egile bat izango da; hauxe da hain zuzen ere irakurketa distributiboa ematen diguna hain zuzen ere.

Irakurketa kolektiboa ez onartzearen arrazoa aurretik azalduaren bidetik dator baita ere: irakurketa kolektiboan aulki-bat-egin e gertakari bakarra egongo da eta mutilak ere egile talde bakar bezala hartuko genituzke. Neurri funtzioa (i.e. zenbatzaile komunztaduragabea) h -ren barrutiari aplikatuko zaio eta barruti horretan elementu bakar bat besterik ez da egongo. Elementu bakar batek parte-osotasun egiturarik ez duenez, neurri funtzioa ezingo zaio monotonikoki aplikatu eta honek irakurketa kolektiboaren ez-gramatikaltasuna agerian uzten du.

¹⁷ Ikus 5.2, 5.3 eta 5.4 atalak.

(97) e xU_1yU_1z

Laburtuz: Nakanishi-k japonierarako proposatzen duen mekanismoa euskarara aplikatu daitekeela ikusi ahal izan dugu. Mekanismo honen arabera, neurri funtzioa gertakarietatik datorren homomorfismoaren barrutiari aplikatzen zaio, hau da, gertakarietatik eratorritako indibiduo*ei*. Neurri funtzioa gainera, monotonikoa izan beharko da gertakarietatik eratorritako indibiduo hauekiko. Analisi hau komuntaduragabeek izenarekiko zein aditzarekiko erakusten dituzten murriztapenen motibazioa nondik datorren azaltzeko gai da.

11.4. Egoeren gaineko monotonizitatea

Zenbatzaile komuntaduragabeek zeren gainean kuantifikatzen duten begiratzen aritu garenean zenbatzaile hauek murriztapen batzuk dituztela ikusi ahal izan dugu. Hauen artean bat predikatu kategorikoekin ezin konbinatu izana zen.

- (98) a. Ikasle asko altuak/azkarrak/argiak dira
b. * Ikasle asko altua/azkarra/argia da

Egoera bati buruzko predikatuekin ez dago arazorik, eta komuntaduradun zein komuntaduragabeak azaldu daitezke:

- (99) a. Ikasle asko gaisorik daude egunotan
b. Ikasle asko gaisorik dago egunotan

Hala ere, arazoa ez da zuzen indibiduo-mailako predikatuekin, ondorengo adibideen gramatikaltasunak erakusten duen bezala, i.e. *jakin* eta *gorroto izan* indibiduo mailako predikatutzat hartzen dira:


- (100) a. Ikasle askok *daki* biderkatze taula erabiltzen
b. Ume askok *gorroto du* txirrinduan ibiltzea

Badakigu zenbatzaile komuntaduragabeek izenaren domeinuaren eta aditzaren domeinuaren gainean kuantifikatzen dutela eta horretarako bataren eta bestearen saretxoak h homomorfismo bidez erlazionatu behar direla (eta monotonikoak izan behar dutela). Aurretik ikusi dugu baita ere Kratzer-ek (1995) predikatu kategorikoen eta thetikoen arteko desberdintasuna gertakari argumentu bat edukitzean edo ez edukitzean zegoela argudiatu zuela: thetikoek gertakari argumentua dute, ez ordea kategorikoek. Predikatu kategorikoek (eta indibiduo mailakoek) gertakari argumenturik ez badute, aditz sintagma horrek ez du aukerarik gertakarien parte-osotasun erlazio bat sortzeko, eta ondorioz monotonikoki aplikatuko litzaiokeen neurri sintagmarik ez da egongo. Gauzak horrela, ez dago modurik h homomorfismo bidez indibiduoaren saretxoak gertakarien saretxotik proiektatzeko.

Hemendik jarraitzen dena da, zenbatzaile komuntaduragabe bat indibiduo mailako predikatu batekin konbinatzen den (100)-ko esaldiak ez-gramatikalak izan beharko luketela. Ikus dezakezuen bezala, aurreikuspena ez da betetzen eta esaldiak gramatikalak dira. Gramatikaltasun honek pentsarazten diguna zera da: predikatu hauek


gertakari argumenturik eta ondorioz gertakari saretxorik ez duten arren, badutela h bidez indibiduen saretxea beste saretxoren batetik proiektatzeko aukerarik.

Baina, zein da homomorfismoa baimentzen duen saretxo horren izaera? Badirudi, euskarazko indibiduo mailako predikatu batzuk (ez predikatu kategorikoek) *egoera* (state) argumentu bat dutela eta argumentu horrek baimentzen diola aditz sintagmari parte-osotasun egitura bat edukitzea (101)-n adierazten den bezalaxe. Hau da, *jakite* egoera unitate minimoak egon daitezkeen bitartean (eta beraien batuketak minimoak ez diren unitate haundiagoak sortu $s_1 \cup s_2$, $s_1 \cup s_3$, $s_2 \cup s_3$, $s_1 \cup s_2 \cup s_3$), ez du ematen posible denik *azkarra izate* egoera (ezta gertakari) unitate minimoak esistitzea.¹⁸




S egoera saretxo bat denotatzen baldin badute aditz mota hauek, egoera saretxo honek baimenduko digu aditz sintagmak denotatzen duen *egoera* saretxoaren eta izen sintagmak denotatzen duen indibiduo saretxoaren artean homomorfismo erlazio bat sortzea eta indibiduo saretxo egoera saretxotik proiektatzea. Azken finean, egoeretatik indibiduoetara proiektatuz eta proiektzio horren barrutia (grisez (103)-en) neurtuz, zenbatzaileak aldi berean indibiduoak (μ neurri funtzioa $h(e)$ -tik ateratzen denari aplikatzen baitzaio) eta egoerak (deribatutako μ' neurri funtzioa s -ri aplikatzen baitzaio, ikus 104) zenbatzen ditu; hau da, komunztatzen ez diren zenbatzaile ahulek egoerak (gertakariekin gertatzen zen moduan) zeharka zenbatzen ditu indibiduoak zenbatuz. Hemendik jarraitzen dena da zenbatzaileak monotonikoa izan behar duela egoeretatik proiektatutako indibiduen domeinuarekiko.

(102) Komunztatzen ez diren zenbatzaileei lotutako neurri sintagma



(103) Komunztatzen ez diren zenbatzaileei lotutako neurri sintagma



12. Laburpena

¹⁸ Hau Nakanishi-k (2007) proposatzen duenaren aurka doa (ikus Nakanishi (2007, 13. oinoharra), izan ere, berak ez du *gertakari* saretxorik ez den beste saretxorik onartzen indibiduo mailako predikatuentzat. Badirudi, euskaraz *egoera* saretxo baten beharra dugula datuen berri emateko.

Lan honetan euskarako zenbatzaile komunztaduragabeen propietateak eta portaera erakutsi dugu: izenaz gain aditzaren domeinuaren gaineko kuantifikazioa egiten dutela (bietan murriztapenak erakutsiz) argi utzi dugularik. Hizkuntza desberdinetako datuak ere begiratu ditugu eta euskarako zenbatzaile komunztaduragabeen portaera eta propietate berdinak erakusten dituzten egiturak badirela ikusi ahal izan dugu. Datuen berri emateko homomorfismoa oinarritzen den Nakanishi-ren (2004, 2007) analisisa hartu dugu oinarritzat euskarako datuetara aplikatuz.

Bibliografia hautatua

- Altube, S. 1929. Erderismos. Bermeo.
- Arregi, K. 2003. Focus in Basque movements. Doktoradutza tesia, MIT.
- Barwise, J. & R. Cooper. 1981. "Generalized Quantifiers and natural language". *Linguistics & Philosophy* 4: 159-219.
- Chierchia, G. 1998. "Plurality of Mass Nouns and the Notion of 'Semantic Parameter'". In Rothstein, S. (arg.), *Events and Grammar*. Dordrecht: Kluwer. 53-103.
- Chomsky, N. 2000. "Minimalist inquiries: The framework". In R. Martin et al. (arg), *Step by Step: Essays on Minimalist Syntax in Honor of Howard Lasnik*. Cambridge: MIT Press.
- Coyos, B. 1999. Le parler basque souletin des Arbailles: Une approche de l'ergativité. Paris: L'Harmattan.
- Davidson, D. 1967. "The logical form of action sentences". In N. Rescher (arg.), *The logic of decision and action*, Pittsburgh: University of Pittsburgh Press. 81-95.
- De Rijk, R. 1978. "Topic fronting, focus positioning and the nature of the verb phrase in Basque". In F. Jansen (arg.), *Studies in Fronting*. Lisse: De Reidel Press. 81-112. [De Rijk (1998)an berrargitaratua]
- De Rijk, Rudolf. 1998. De Lingua Vasconum. Selected Writings. ASJU supplements 43. Bilbao: University of the Basque Country.
- Eguzkitza, A. 1986. Topics in the syntax of Basque and Romance. Doktoradutza tesia, UCLA.
- Etxeberria, U. 2005. Quantification and domain restriction in Basque. Doktoradutza tesia, UPV-EHU.
- Etxeberria, U. 2007. "On quantification in Basque and on how some languages restrict their quantificational domain overtly". In L. Matthewson (arg.), *Quantification: Universals and variation*. Oxford: Elsevier Limited. 225-275.
- Ettxepare, R. 2000. "Asko-ren zenbait alderdi". *Lapurdum* V.
- Ettxepare, R. 2003. "Negation". In J. I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg.), *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 387-421.
- Euskaltzaindia. 1985. Euskal Gramatika Lehen Urratsak I. Iruñea.
- Heim, I., H. Lasnik eta R. May. 1991. "Reciprocity and plurality". *Linguistic Inquiry* 22:1: 63-101.
- Herburger, E. 1997. "Focus and weak noun phrases". *Natural Language Semantics* 5: 53-78.
- Herburger, E. 2000. What counts: Focus and quantification. Cambridge: MIT Press.
- Hidalgo, B. 1995. Hitzen ordena euskaraz. Doktoradutza tesia, UPV-EHU.
- Hornstein, N. eta J. Uriagereka. 2002. "Labels and projections: a note on the syntax of quantifiers". In J. Uriagereka (arg.), *Derivations*. Routledge.

- Irigoin, A. 1985. "Euskarazko izen sintagma mugatzailerik gabekoez". *Euskera* XXX, 129-139.
- Koslicki, K. 1999. "The semantics of mass predicates". *Noûs* 33:1, 46-91.
- Kratzer, A. 1995. "Stage-level predicates and individual-level predicates". In G. Carlson eta F.J. Pelletier (arg.), *The generic book*. Chicago: The University of Chicago Press. 125-175.
- Krifka, M. 1989. "Nominal reference, temporal constitution, and quantification in event semantics". In R. Bartsch, J. van Benthem eta P. van Emde Boas (arg.), *Semantics and contextual expression*. Dordrecht: Foris. 75-115.
- Krifka, M. 1990. "Four thousands ships passed through the lock: Object-induced measure functions on events". *Linguistics & Philosophy* 13: 487-520.
- Krifka, M. 1998. "Scope inversion under the rise-fall contour in German". *Linguistic Inquiry* 29.1: 75-112.
- Kuroda, Y. 1972. "The categorial and the thetic judgement". *Foundations of Language* 9, 153-185.
- Milsark, G. 1977. Existential sentences in English. Doktoradutza tesia. MIT.
- Nakanishi, K. 2004. Domains of measurement: Formal properties of non-split/split quantifier constructions. Ph.D. dissertation, University of Pennsylvania.
- Nakanishi, K. 2007. "Measurement in the nominal and the verbal domain". *Linguistics & Philosophy* 30: 235-276.
- Odriozola, J.C. eta I. Zabala. 1992. Izen sintagma. Bilbo: EHU.
- Ortiz de Urbina, J. 1983. Empty categories and focus in Basque. *Studies in the Linguistics Sciences*, 13-1, 133-156.
- Ortiz de Urbina, J. 1999. Focus in Basque. In *The grammar of focus* (G. Rebuschi and L. Tuller, eds.). John Benjamins, Amsterdam. 311-333
- Partee, B. 1988. "Many quantifiers". *Proceedings of the Fifth Eastern States Conference on Linguistics (ESCOL88)*. Ohio State University, 383-402.
- Pelletier, J. eta L. Schubert. 1989. "Mass expressions". In D. Gabbay eta F. Guenther (arg), *Handbook of Philosophical Logic*, IV, 327-407.
- Reinhart, T. 1983. Anaphora and semantic interpretation. Croom Helm, London.
- Rotaetxe, K. 1979. "Numeral eta aditzen arteko konkordantziak". *FLV* 32, 259-267.
- Schwarzschild, R. 2002. "The grammar of measurement". In *Proceedings of SALT XII*.
- Txillardegui. 1977. Oinarri bila. Donostia.
- Txillardegui. 1978. Euskal gramatika. Ediciones Vascas: Donostia.